

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3980

EBAZPENA, 2026ko irailaren 9koa, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiarena, Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen federazio eta konfederazioei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena, 2026an berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiak Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen federazio eta konfederazioei dirulaguntzak emateko deialdia egin du, 2026rako berrikuntza-proiektuak egin ditzaten. Deialdiaren xedea da euskal diasporaren eremuan proiektu berritzaileen garapena sustatzea, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzeko eta euskal komunitate globalaren irudi eguneratua proiektatzeko. Horrela, kanpoko euskal komunitatea indartu nahi da, eta hori da Eusko Jaurlaritzaren helburu estrategikoetako bat.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak urtero deitzen dira eta Lehendakaritzaren 2024-2027 Lau Urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude. Plan hori Koordinaziorako eta Gizarte Komunikaziorako idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta honako helbide honetan argitaratu zen: <https://www.euskadi.eus/proiektua/lehendakaritzaren-2024eko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/web01-s2lehen/eu/>

Era berean, dirulaguntza horiek Lehendakaritzaren 2026ko ekitaldiko Dirulaguntzen Urteko Plan Estrategikoan jasota daude. Plan hori Koordinaziorako eta Proiektu Estrategikoetarako idazkari nagusiaren 2026ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta honako helbide honetan argitaratu zen: Lehendakaritzaren 2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa – Lehendakaritza – Euskadi.eus/

Ebazpen hau Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera arautuko da (2023ko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 247. zenbakia)

Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiari dagokio bere eskumen-arloari dagozkion dirulaguntzen deialdia egitea.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Etxeei eta Euskal Etxeen federazio eta konfederazioei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea 2026ko ekitaldirako, berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Europar Batasunaren lurraldean kokatutako Euskal Etxeek eta federazioek jasotako laguntzak Batzordearen abenduaren 13ko (EE) 2023/2831 Erregelamenduaren mende egongo dira. Erregelamendu hori Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da (EBAO, L, 2023ko abenduaren 15ekoa). Laguntza horiek minimis gisa kalifikatzen dira, pertsona

juridiko edo fisiko jakin bati emandako guztizko laguntza ez baita 300.000 eurotik gorakoa izango, hiru urteko edozein alditan. Muga horretatik beherako laguntzek merkataritzari eragiten ez diotela edo lehia faltsutzen ez dutela uste da, eta, beraz, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluaaren aplikazio-eremuan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 9a.

Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia,
ANDER CABALLERO BARTUREN.

ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.— Xedea.

Ebazpen honen xedea da euskal etxeei, federazioei eta euskal etheen konfederazioei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea eta deialdia egitea 2026rako, berrikuntza-proiektuak egin ditzaten. Dirulaguntza horien bidez, euskal diasporaren esparruan proiektu berritzaileen garapena sustatu nahi da, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzeko eta euskal komunitate globalaren irudi eguneratua proiektatzeko.

Bigarrena.— Onuradunak eta betekizunak.

1.— Ebazpen honek arautzen dituen dirulaguntzak euskal etxeek, federazioek eta euskal etheen konfederazioek eskatu ahal izango dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzko maiatzaren 2ko 8/1994 Legearen 2. eta 6. artikuluetan ezarritako definizioaren arabera.

2.— Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden euskal etheen aitorpena eta erregistroa arautzen dituen 318/1994 Dekretuaren 4. eta 5. artikuluetan euskal etxeentzat ezarritako betebeharrak bete beharko dira laguntza hauek eskatzeko.

3.— Erakunde onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua arabera onuradun izatea eragotzen duten egoeretako batean ere ez egotea.

b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan deskribatutako egoeretan ez egotea.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Hirugarrena.— Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.— Deialdi honen ondorioetarako, proiektu berritzailetzat hartuko dira Euskal Etxeetako jarduera tradizionalak/ohikoak zabaltzen dituztenak, bai jarduera-eremuei dagokienez (soziala, ekonomikoa, gizatiarra, kulturatik haratago), bai dagoen jarduera hobetzeko eta balio esanguratsua sortzeko ideia, produktu, zerbitzu edo metodo berriak ezartzeko prozesuak sartzeari dagokionez. Arrakastaz sartzan diren elementuak (teknologikoak edo ez) aldatzea edo sortzea ekarriko dute, eta, horretarako, konponbide eraginkorrak eta lehiakortasunezkoak emango dituzte.

Ebazpen honetan jasotako laguntzen helburua da Euskal Etxeetan nagusi izan den bilera-ingurunearen kontzeptu tradizionala gainditzin laguntzen duten proiektu berritzaileak osorik edo zati batean finantzatzea, teknologiararen, iraunkortasunaren eta inklusioaren nodo aktibo bihurtzeko.

2.— Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Halaber, honako gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

a) Langile-gastuak (nominak, gizarte-aseguruak, dietak eta bestelako kalte-ordainak...).

b) Materialak erostea.

- c) Alokairuak (espazioak, agertokia...).
- d) Publizitatea eta harreman publikoak (inprimategiak, mezularitza...).
- e) Garraioak.
- f) Kanpoko beste zerbitzu batzuk (enpresekin kontratatu beharreko beste zerbitzu batzuk).
- g) Jarduera behar bezala garatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk.

Laugarrena.– Zenbatekoa.

Deialdi honetara bideratutako baliabide ekonomikoen zenbateko osoa 70.000 eurokoa da, proiektu berritzaileak finantzatzeko. Deialdia norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.

Bosgarrena.– Dirulaguntzen mugak eta zenbatekoak.

1.– Proiektu berritzaileak diruz lagunduko dira, eskaera egiten duen euskal etxe edo euskal etxe bakoitzeko proiektu bat gehienez ere, kanpoko euskal komunitatean balioa sortzeko. Horretarako, 70.000 euro erabiliko dira guztira.

Proiektu-gastuek jaso ahal izango dute dirulaguntza, eta proiektu bakoitzak gehienez 7.000 euro-ko finantzaketa jaso ahal izango du. Proiektu horiek deialdiaren bosgarren oinarrian jasotako irizpide espezifikoaren arabera hautatuko dira, dirulaguntzen lerro horri esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte.

2.– Emandako dirulaguntzen gutxieneko zenbatekoa 300 eurokoa izango da. Zenbatekoa zehazteko formularen aplikaziotik kopuru txikiagoa ateratzen bada, ez da laguntzarik emango. Euskal Etxeen eta Euskal Etxeen federazioen kasuan, gehienez 7.000 euroko dirulaguntzak emango dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutako kopuru osoaren arabera kalkulatu da.

3.– Ematen diren dirulaguntzek ez dute eskatutako zenbatekoa gaindituko, eta euskal zentroak, federazioak edo konfederazioak aurkeztutako gastu-aurrekontuan jasotako diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoaren ehuneko ehunera (% 100) iritsi ahal izango dira.

4.– Balorazio- eta hautaketa-fasean laugarren oinarrian adierazitako puntuazioa lortu duten erakunde eskatzaileentzat, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, beharrezko hurrenkera hartuko da kontuan, eta aurrekontuan diruz lagun daitekeen gastuaren oinarriari erakunde bakoitzak lortutako puntuazioaren ehuneko aplikatuko zaio, eta gainerako zenbatekoa emango zaio.

5.– Erakunde onuradunak Europar Batasunaren lurraldean dauden Euskal Etxeak eta federazioak direnean, laguntzak Batzordearen abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoan, ezarritako minimis erregimenari atxikiko zaizkio (EBAO, L seriea, 2023-12-15ekoa). Erakunde bakar bati emandako minimis laguntzen zenbateko osoa ez da 300.000 eurotik gorakoa izango hiru urteko edozein alditan.

Seigarrena.– Proiektu berritzaileekin lotutako jardueretarako balorazio-irizpideak.

Ondorengo irizpideak aurkeztutako proiektu originalak eta eraldatzaileak hautatu eta sustatzera bideratuta daude, Euskal Etxeentzat, Euskal Etxeen federazio eta konfederazioarentzat eta bere komunitatearentzat argi eta garbi baliagarriak direnak. Ondoren, kanpoko euskal komunitate osoan egokitze gaitasuna izango dute, eta denboran zehar eraldaketa iraunkorra lortzen lagunduko dute.

Atal honetan gehienez 80 puntu lor daitezke. Balorazio-irizpideak honako hauek izango dira:

1.– Beharra identifikatzea, berrikuntza-maila eta proposamenaren moldagarritasuna: 30 puntu gehienez.

a) 30 puntu emango dira, gehienez, zuzendu nahi den arazoaren edo akatsaren definizio argi eta zehatza duten proposamenen kasuan, datu edo diagnostiko komunitarioarekin baliozkotua, ikuspegi guztiz berritzaile baten abantailak adieraziz eta beste euskal zentro batzuetan aplikatzeko potentzial zabalarekin (esperientzia estrapolagarria bost zentro baino gehiagotara).

b) Zuzendu beharreko premiaren zehaztapen zehatzik ez duten edo horrek ekarriko dituen abantailak argi eta garbi identifikatu ez dituzten proiektuen kasuan, gehienez 15 puntu eman ahal izango dira, beste Euskal Etxeen errealitatera egokitzeko eta berrikuntza-maila kontuan hartuta.

2.– Aurreikusitako inpaktua, gehienez, 20 puntu.

Inpaktu-adierazle garrantzitsuen bidez balioetsi daitekeen eraldaketa esanguratsua sortzea: inklusioa eta ekitatea sustatzea, eta munduan zehar banatutako Euskal Etxeen, federazioen eta konfederazioen arteko identitatea eta harremanak sendotzea.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako proposamen xehatua baloratzeko, bete beharreko helburuen zehaztasun-maila hartuko da kontuan, gehienez ere adierazleei dagokienez, 20 puntu (20 puntu zehaztasun-maila altua bada eta 10 puntu ertaina bada).

3.– Aurkeztutako proiektuaren bideragarritasuna, gehienez, 20 puntu.

Baliabideen eta planteatutako helburuen arteko koherentzia, baliabide propioekin autofinantzatzeko gaitasunean oinarrituta. Gehienez 20 puntuko balorazioarekin, epigrafe hauetako bati esleitura (ehunekoak gertuen dagoen zenbaki osora biribilduko dira):

- Autofinantzaketa % 0tik % 25era: 0 eta 5 puntu artean.
- % 26tik % 50era bitarteko autofinantzaketa: 6-10 puntu.
- % 51-75eko autofinantzaketa: 11-15 puntu.
- % 76tik % 100era bitarteko autofinantzaketa: 16-20 puntu.

Autofinantzaketaren ehunekoa bi kontzepturen arabera definitu da, % 50eko ponderazio berarekin:

1.– Euskal Etxearen diru-sarrerak guztizko gastuekin zatitu dira, balantzeetan emandako datuen arabera, eta 0 eta 10 puntu arteko koefizientea lortu da.

2.– Benetan eskatutako zenbatekoa eskabidean aurkeztutako aurrekontu osoarekin zatituko da, eta koefizientea 0 eta 10 puntu artekoa izango da.

3.– Genero-ikuspegia garatu beharreko programa, jarduera edo ekintzetan (10 puntu, gehienez).

a) Emakumeek zuzendaritza-batzordeetan berdintasunez parte hartzea, erregistro ofizialean eguneratutako datuen arabera – gehienez, 5 puntu (5 puntu emango dira zuzendaritza-batzordeetan emakumeen ehunekoa % 50ekoa edo handiagoa denean, gainerako puntuak modu proportzionalen kalkulatuta).

b) Jarduera edo proiektua gauzatzeko memoria teknikoan genero-ikuspegia txertatzeko konpromisoa (gehienez 5 puntu):

– Aurreikusitako helburu eta jardueretan emakumeei eragiten dien desberdintasuna kontuan hartzea: 2,5 puntu.

– Amaierako memorian proiektuaren edo jardueraren genero-eraginari buruzko erreferentzia bat aurkezteko konpromisoa, jardueraren onuradunengan edo hura gauzatuko duten langileen-gan: 2,5 puntu.

Zazpigarrena.– Diruz lagun daitezkeen jardueren denbora-eremua.

Deialdi honetara biltzen diren programak eta jarduerak 2026ko ekitaldian gauzatu beharko dira, eta, nolanahi ere, ekitaldi horretako abenduaren 31n amaituta egon beharko dute.

Zortzigarrena.– Dirulaguntzak esleitzeko prozedura.

Deialdi hau Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitako lehiaketa bidezko norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da.

Horretarako, modalitate bakoitzean aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, oinarri hauetan ezarritako balorazio-irizpideei jarraituz eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko, eta hautaketa-fasean puntuen % 30 lortu eta baloraziorik onena lortu dutenei esleitzeko zaizkie laguntzak, laguntza-modalitate bakoitzerako dagoen kreditua agortu arte.

Bederatzigarrena.– Eskabideak aurkezteko modua, lekua eta epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Deialdi honetara aurkezten diren Euskal Etxeek, federazioek eta konfederazioek modu elektronikoa aurkeztuko dituzte eskabideak.

3.– Deialdi honetara aurkezten diren Euskal Etxeek, federazioek eta konfederazioek modu elektronikoa izapidetu beharko dute eskabidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/> onartutako identifikazio- eta sinadura elektronikoko sistemaren bat erabiliz.

Horretarako, erakunde horietako lehendakariak, legezko ordezkariak edo ahaldunek BAK esku-ratu ahal izango dute, indarrean duten NANaren edo pasaportearen bidez, honako helbide hauetan aurreikusitako identifikazio- eta sinadura elektronikoko sistema gisa:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1273301>

<https://www.euskadi.eus/euskaldunak>

4.– Deialdiko laguntzak eskatzeko, esteketako edozeinetan eskura daitezkeen eredu normalizatuak bete beharko da.

Hamargarrena.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Euskal Etxeek honako agiri hauek erantsi beharko dizkiete eskabideei:

a) Laguntza zein programa, jarduera edo ekintzatarako eskatzen den azaltzen duen memoria. Bertan, honako alderdi hauek zehaztu ahal izango dira: zuzendu beharreko arazoaren edo aka-

tsaren deskribapena, planteatutako proiektuak ekarriko dituen abantailak, lortu nahi den eragin positiboaren adierazleak.

b) Programa, jarduera edo ekintza gauzatzeko kostuaren aurrekontua, aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak berariaz aipatuta.

Aurrekontuak moneta nazionalean aurkeztuko dira eta Ebaluazio Batzordeak erabakiko du euroarekin bat datozen, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eguneko moneta-aldaketa erreferentziaz hartuta.

c) Euskal Etxearen diru-sarreraren eta gastuen balantzea, laguntza-deialdiaren aurreko aurrekontu-ekitaldiari dagokiona.

d) Emakumeak programatutako jardueretan duen parte-hartzeari buruzko txostena, bai eta diru-laguntza eskatzen duen erakundearen zuzendaritza-organoetan sartzeari buruzkoa ere

2.– Ikastetxearen, federazioaren edo konfederazioaren legezko ordezkariak edo dagokion euskal zentroak, federazioak edo konfederazioak horretarako ahaldundutako beste pertsona fisiko batek sinatu beharko ditu eskabideak, behar bezala egiaztatuta.

Hamaikagarrena.– Eskabideak zuzentzea.

Dirulaguntzaren eskabideak behar bezala betetzen ez badira, edo aurreko oinarrian adierazitako agiriak aurkezten ez badira, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, horretarako ebazpena eman ondoren.

Hamabigarrena.– Ebaluazio Batzordea.

Ebaluazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

– Gorka Ruiz de Azúa Gómez de Segura jauna, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiko teknikaria.

– Estibaliz Urcelay Erguido Andra, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiko teknikaria, batzordekidea.

– Caren Luisovna León Peraza andrea, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusikoa, 2. batzordekidea.

– Iñigo Duran Ibañez jauna, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusikoa, Batzordeko idazkaria.

Hamahirugarrena.– Laguntzak kudeatzen dituen organoa.

Kanpoko Euskal Komunitatearen Zuzendaritzari dagokio laguntza-deialdi honek dakartzan kudeaketa-lanak egitea.

Hamalauugarrena.– Laguntzen ebazpena.

1.– Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiak, organo kudeatzaileak egindako proposamena ikusita, laguntzak esleitzeko prozedura ebatziko du. Ebazpenean laguntzen kuantifikazioa jasoko da, gastu arruntak eta inbertsio-gastuak eta horien titularrak bereizita.

2.– Ebazpena banakako komunikazio bidez jakinaraziko zaie zentro edo erakunde eskatzaileei, horretarako adierazi duten lekuan, sei hilabeteko epean, deialdiaren urteko ebazpenak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 21/2023 Legearen 26. artikulua betez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, jende guztiak horren berri izan dezan.

4.– Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hamabosgarrena.– Laguntzen erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiela jakinarazteko jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egin ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Organo kudeatzaileak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo finantzaketa dela-eta dirulaguntza horien zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunak dituen beste kontrol-organo batek eskatutako informazio guztia ematea.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzea.

4.– Era berean, erakunde onuradunak Europar Batasunaren lurraldean kokatutako Euskal Etxeak eta federazio edo konfederazioak badira, helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso badituzte, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, edo hiru urtean beste minimis laguntza batzuk jaso badituzte, jakinarazi egin beharko dute.

5.– Dirulaguntzen Araubidea Erregeulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden erakundeak ezin izango dira onuradun izan.

Hamaseigarrena.– Laguntzen bateragarritasuna.

Dirulaguntza horiek bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako ematen dituenekin, betiere gainfinantzaketarik eragiten ez badu. Halakorik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

Hamazazpigarrena.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza zatika ordainduko da, honela:

a) Emandako dirulaguntzaren % 75 dirulaguntza onartu ondoren ordainduko da.

b) Gainerako % 25a, diruz lagundutako jardueraren justifikazio osoa jaso eta egiaztatu ondoren. Justifikazio horrek aurkeztutako aurrekontuaren % 100 estaliko du.

2.– Nolanahi ere, bigarren ordainketa gauzatu aurretik eta dirulaguntza justifikatu ondoren, dirulaguntzaren likidazioa egingo da, azken zenbatekoa zehazteko. Ondorio horietarako, azkenean

justifikatutako gastuari dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztu zuen ehuneko bera aplikatuko zaio, aurkeztutako aurrekontuarekiko. Ordaintzeke dagoen zenbatekoa likidazioan zehaztutako dirulaguntzaren eta aldeztu aurretik ordaindutako kopuruaren arteko diferentziazik ateratzen dena izango da.

Hemezortzigarrena.– Dirulaguntzen justifikazioa.

1.– Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, diruz lagundutako jarduerak amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan eta, nolatan ere, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Dirulaguntzaren xede den programa, jarduerak edo ekintzen gauzatzeari buruzko txosten xehatua.

b) Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko eragindako gastuen frogagiriak.

2.– Gastuak sortu duen kontzeptuak argi eta garbi jasotzen duten egiaztapenak baino ez dira onartuko, bai eta dokumentuak eman eta jaso duen erakunde edo organismoak ere.

3.– Justifikatu beharreko zenbatekoak zenbatzeko, lehenengo ordainketa egiten den eguneko moneta-trukea hartuko da kontuan.

Hemeretzigarrena.– Dirulaguntzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere dirulaguntzaren helburua bete bada– eta, hala badagokio, beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso badira, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusiak dagoen aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitzeko.

2.– Edozein arrazoi dela-eta, diruz lagundutako programak, jarduerak edo ekintzak ezin badira eskaeran jasotako moduan gauzatu, egoera horren berri eman beharko zaio Kanpo Harremanetarako Idazkaritzari Nagusiari. Kasu horretan, eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea bidezkoa ez denean, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusiak erabakiko du, hala badagokio, emandako zenbatekoa itzultzea.

Hogeigarrena.– Ez-betetzeak eta itzultzeko prozedura.

Dirulaguntza emateko baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.